

AITA RAFAEL URIONAGUENA GARRO (1890-1975)

Sarrera

Zenbait hilabete barru, azken gerra zibilaren 70. urteurrena gogoratuko dugu. Horregatik, *Karmel* aldizkariaren ale honek A. Rafaelen eskuizkribu interesgarri bat argitaratzen dugu, Francoren tropa nazionalak iristean Larrean (Zornotza) gertatutakoaz. Era errazean kontatzen ditu gure fraideak gertakariak, hein handi batez haien lekuko eta protagonista izan baitzen. Balio historiko handi samarra duen testu autografoa da, leku txiki batera mugatua eta pertsona gutxi hartzen dituen izan arren.

Testu hau argitaratzean, ezinbestekoa da egilea aurkeztea: Rafael San Joserena (Jose Sotero Urionaguena Garro); Karmeldar honen beste zertxobait ere gogorarazi nahi dugu: hil zeneko hogeita hamargarren urtea (1975).

Biografia labur hau edo bizitzako zertzeladak aurkeztean, ez gara asko luzatuko gerra garaia eta gerra ostea azaltzean, gai hori xehetasun ugari garatuko duelako A. Rafaellek bere testuan.

1975eko otsailaren 11n hil zen eta hori zela eta, bi idazlan argitaratu ziren hartaz: bata, M. Alegriak idatzia, Karmeldarren Nafarroako San Joakim Probintziako edo Euskal Herriko Kar-



meldarren Buletinean (1975, 84 zk., 87-93 or.), eta bestea, Aita Lon Arteagak, *Agur* aldizkarian idatzia (1975, 176 zk., 6 or.)¹.


Zenbait argibide biografiko

Jose Sotero Bolibarren (Bizkaia) jaio zen 1890eko apirilaren 22an. Lehen ikasketak bere herriko eskolan egin zituen eta latina Markinako irakastegian. Larreako nobizio-etxean sartu zen, eta nobiziotzako urtea amaitu ondoren, profesa egin zuen 1909ko apirilaren 22an Rafael San Joserena izenaz.

Filosofia eta teologiako ikasketak (1909-1917) Burgosko, Gasteizko eta Begoñako Karmeloko Karmeldarren ikastetxee-

¹ Cf. GKPA (Gasteizko Karmendarren Probintziako artxiboa), Biográficas, caja 161; eta Markinako Karmengo artxiboan dauden dokumentu pertsonalak. Ikus M. Alegriaren kontaketa biografiko laburra edota Bizente Batizek erlijio-soen oroigarri bere eskuz idatzirikoa... (APCM, A-XII-1, 102-105); azken argitalpenen artean, ik. URKIZA, *Karmeldarrak Markinan*, 409-410 orr.; A. Unzueta - L. M. Izpura, *Catálogo de los religiosos Carmelitas Descalzos de la provincia de San Joaquín de Navarra (1868-2000)*, Roma, 2001, 1224 zk.

J. URKIZA - A. UNZUETA - A. FDZ. DE MEDIOLA, *Provincia carmelitana de San Joaquín de Navarra. Carmelitas en Euskal Herria (siglos XIII-XX)*, Vitoria-Gasteiz, 2005, 454-455 or.



tan burutu zituen². 1915eko abuztuaren 21ean ordena txikiak eta biharamunean subdiakonotza Markinako Karmenen hartu ondoren, Gasteizen ordenatu zen, lehenbizi diakono (1915eko abenduaren 18an) eta gero apaiz 1916ko ekainaren 17an.

Gerra zibilean preso hartu zuten Larreako priore zela (1936-1937); zenbait urte espetxean egin ondoren Karmeldarren euskal probintziako komentuetara itzulirik, hainbat komentutan bizi izan zen eta priore-kargua izan zuen Larrean (1936-1937), Donostian (1945-1948), Eibarren (1948-1951, 1954-1957). Administratzaile izan zen Basamortuan (1918-1919), Altzon (1921-1927), Larrean (1928-1930), Gasteizen (1942-1945), eta batez ere Markinan; azken 18 urteetan Markinan bizi izan zen (1957-1975), eta hemen hil zen 1975eko otsailaren 11n. Nobizioen maisu eta Probintzialaren laugarren kontseilaria ere izan zen, A. Toribiok karguari uko egin ziolako (1933-1936), eta abar; Zaldibarko, Markinako Moja karmeldarren eta beste Ordena erlijioso batzuetakoen aitor-entzule izan zen.

A. Rafael otoitzari eta lanari emana zen; gizon praktikoa, administratzaile gisa zerbitzari oso ona, bai sukaldeko zereginetan, bai ortukoetan, batez ere Markinan; zentzu onekoa eta laguntzekoa.

Gerratea eta espetxeak

Pixka bat gehiago luzatuko gara gai honetan; izan ere, A. Rafaelen koadernoak argitaratzeak bide ematen digu horretarako.

Gerra zibila, beronen ondorio eta guzti, garrantzi handiko gertakaria izan zen haren bizitzan, eta hemen gogora ekarri behar ditugu, labur bada ere, Larreako komentuari inguruan izan zituen zenbait esperientzia eta hainbat espetxetatik igaro beharra: Larreatik, Begoñatik, Langraiztik eta Karmonatik.

² GKPA, *Examen Studentium*.



AUDITORIA DE GUERRA
BILBAO

Juzgado Especial de
Ejecuciones

Núm 1284 .-

Consecuente a la instancia que eleva al Ilmo. Sr. Auditor de Guerra, el religioso carmelita JOSE SOTERO URIONAGUENA GARRO, encartado en el sumarisimo nº250 de la Plaza de Bilbao, y que en la actualidad se encuentra disfrutando de los beneficios de prisión atenuada en el Monasterio de Rigadas de Carmelitas en Hoz de Anero (Santander) para que se traslade al Convento de Carmelitas de Vitoria, para fijar su residencia, teniendo la obligación de presentarse a las Autoridades locales todos los primeros de mes, y comunicar su salida a las Autoridades donde hasta la fecha hacia sus presentaciones.-

Bilbao 2 de Julio de 1.942.-

EL JUEZ MILITAR.



Urionaguena

D. Jose Sotero Urionaguena Garro.-

HOZ DE ANERO (SANTANDER)

A. Rafael, gizon xumea, langilea eta otoitzari emana, karitate handikoa eta Karmeldarren Ordena maite zuena, inori kalte egiteko gai ez zena, Francoren nazionalak Zornotzara iritsi zirenean, karmeldar batzuek ihes egin behar izan zuten, baina hark, komentuko priore zen aldetik eta A. Jose Domingo, nahiko inozo, komentuan geratu ziren, errespetatuak izango zirelakoan: desengainu handia izan zuten. Azken aldian, "Provincia carmelitana de San Joaquín de Navarra"³ liburuan A. Unzuetak adierazten ditu egoera sozio-politiko hori eta A. Rafaelen beraren egoera, labur bada ere.

Oso larria izan zen Larreako komentuan eta Zornotzako ikastetxean gertatu zena. Ikastetxeko umeak euren etxeetara bidali zituzten; eta ikastetxeko eraikina zaurituen ospitale bihurtu zen. Larreako komentua (nobizio-etxea) tropa abertzaleek hartu zuten, A. Priore Rafael San Joserenak eta EAJak elkar harturik, bahikuntza egiten zutelako eginez, gorriek hartaz jabetu eta gehiegikeriaren bat egin ez zezaten eraikinarekin edo fraideekin. Babes honekin, komunitateko bizitza, elizkizunak eta fraideen ministerioa egun normaletan bezala egin ahal izango ziren. Komunitatea haziz joan zen toki arriskutsuetatik, esaterako, Santandertik eta Gipuzkoatik ihesi zetozen erlijiosoekin. Hala ere, hobe izango zelakoan, nobiziotza kentzea eta Bizkaiko eta Gipuzkoako nobizioak nor bere etxeetara bidaltzea erabaki zuten; gerrako beste zonakoak zirenak (Araba eta Nafarroa) konfiantzazko etxeetan banatu zituzten.

Baina komentuaren zati bat kuartel izendatu zutenean, hegazkin militarren helburu bihurtu zen, eta bai erlijiosoak eta bai auzoko familietakoak handik urrun zeuden baserrietara joan ziren. Zahartxoak eta hain kementsu ez zirenak gogoan izanik, Prioreak Etxanoko apaizetxea haientzat eskuratzea lortu zuen hango erretoreagandik, eta han sartu ziren nagusitzat A.

³ J. URKIZA - A. UNZUETA - A. FDZ. DE MEDICLA, *Provincia carmelitana de San Joaquín de Navarra. Carmelitas en Euskal Herria (siglos XIII-XX)*, Vitoria-Gasteiz, 2005, 378-394, 881-890.

CERTIFICADO DE LIBERACION DEFINITIVA

Don Alfonso Lozano Gaxena Director de la Prisión Especial y
de Partido de Carmena (Sevilla) Presidente de la Junta de disciplina de la misma.

FILIACION Y RESEÑA

Nombre José Sotero Urionaguena Garro
Naturaleza Certanuga
Edad cuerpo y nueve años
Pelo
Ojos
Cara
Color
Complexión
Estado civil Célibe
Hijos
Domicilio que elige Convento de P. P. Carmena - Viloria -

SEÑAS PARTICULARES

(Firma del liberado o impresión dactilar del pulgar derecho)

José Sotero Urionaguena Garro

Pulgar derecho

CERTIFICO: Que en el día de hoy, y previo la aprobación del Tribunal sentenciador, se concede la libertad definitiva a José Sotero Urionaguena Garro de Certanuga por haber extinguido su condena.

Tres años de prisión menor cuya filiación se expresa al margen, fué puesto en libertad condicional el día veintinueve de Julio de mil novecientos cuarenta y desde entonces a la fecha su comportamiento ha sido irreprochable, demostrando con ello que ha hecho buen uso de la gracia que se le concedió.

Y para que conste, expido la presente en Carmena a 22 de Febrero de 1943



Alfonso Lozano
7208



Espetxean egondako karmeldarrak.

Jose Domingo Nobizioen Maisua zutela; Priorea eta beste erlijioso apaiz bat edo komentuan geratu ziren elizkizunetan eta gainerako gauzetan laguntzeko.

Martxoaren 31n hasi zen "nazionalen" eraso iparraldean. Egun horretan Durango bonbardatu zuten. Karmeldarrek Bilborantz erretiratzeko agindua hartu zuten. Etxanoko apaizetxean zeuden karmeldar

apaiz eta nobizioak Begoñako Karmelora bidali zituzten. Plazako Ordezkararen oniritziarekin, A. Rafael prioreak eta A. Jose Domingo prioreordeak Larreako komentuan geratzea erabaki zuten handik alde egin gabe eta nazionalak iristean haiengana aurkeztuko ziren, inozo halakoek errespetatuak izango zirela uste baitzuten. Baina engainu ederra!

Maiatzaren 18an sartu ziren nazionalak komentuan eta dorean euren bandera gorri eta horia jarri zuten. Biharamunean, eguerdi alderantz, A. Román Urtiaga atxilotu zuten Etxanoko apaizetxean eta erreketen pikete batek fusilatu zuen Larreako komentuko ortuko horma ondoan. Pixka bat geroago, pikete bera agertu zen Aita Rafael, Jose Domingo, Avelino, Bizente eta Anaia Eugenio zeuden baserrian eta atxiloturik Lastra koronela zegoen baserrira eraman zituzten. Honek lehen hirurak Etxanoko kanposantuko horma ondoan fusilatzeko agindua eman zuen. Ustekabean Begoñako basilikako

erretorea bidean aurkitzeak libratu zituen une hartan fusilatuak izatetik, baina ez lehenbizi Durangoko Komandantziara bidaliak izan eta, galdeketa iraingarria jasan ondoren, gerrako preso gisa Gasteizko behin-behineko ziega zikin batera bidaliak izatetik. Maiatzaren 20a zen. Bi egun geroago, A. Amalio Etxeberria Gasteizko Priorearen ahaleginei esker, hirurak Gasteizko komentura eraman zituzten atxilotu gisa, A. Martin eta beste apaiz batzuk bezala.

Maiatzaren 26an Donostiako "El Diario Vasco" egunkarian "Elixir Carmelitano" izenburua zuen artikulua agertu zen; artikulua horretan Larreako karmeldarrak abertzale izateaz eta sermoietan eta gainerako irakatsietan abertzaletasunaren alde egiteaz salatzen ziren. Horrek A. Amalioen berehalako erantzuna ekarri zuen, batez ere A. Rafael eta A. Jose Domingo oraindik egoera zailagoetatik ateratzearren. A. Vidal lagun zuela, Gobernadore Militarren aurrean agertu zen hilaren 28an artikulua zioenaz hura ohartarazteko eta egun berean Donostiara joan eta egunkariaren erredazioan agertu ziren artikuluen gezurak salatzeko.

A. Amaliok egiaz gauzak nola ziren kontatzen duen idazkia aurkeztu zuen *La verdad sobre una información* izenburuaz, baina "El Diario Vasco" egunkariak ez zion leku eman egunkariaren orrietan.

Larreako gertatutako guztiaren egia kontatzeak ez zuen eragotzi epaiketa. Are gehiago: epaiketan kondenatuak izan aurretik, zigor morala ezarri zien Ordenak, une hartan zituzten nagusi-karguak utz ditzaten presioa eginez. A. Rafaelek Larreako priore-kargua, A. Jose Domingok Nobizioen Maisu-kargua eta A. Martinek Markinako priore-kargua.

⁴ Lehen mailako dokumentuak dira A. Jose Domingoren *Egunerokoa*, 1936ko ekainaren 8an hasi eta 1937ko apirilaren 9an amaitzen dena; eta *Larreako komentuarien eta bertako Priorearen ibileren kontara historikoa Espainiako gerra zibilean* izenekoak, 148 orrialde Prioreak berak, A. Rafael San Joserenak, idatzia.

Uztailaren 17an, hiru apaiz karmeldarrak eta A. Avelino kartzela bihurtua zegoen Begoñako Karmelora eraman zituzten eta 3. Epaile Militarren ardurapean geratu ziren.

Ezaguna da karmeldar batzuen aurka egin zen epaiketak zer egozten zion bakoitzari:

- A. Leon Aranguren bere borondatez Gudarien Kapilau izateaz eta tropa nazionalen aurka arenga edo hitzaldi beroa gudariei egiteaz, abertzale porrokatua eta propagandista aktiboa izateaz salatua.

- A. Rafael Urionaguena abertzale porrokatua izateaz, horren alde propaganda egiteaz eta, idatziz, "Rosa Luxemburgo" Batailoiko Komandanteari eskerrak emateaz salatua, asturiar gorrien mehatxuen aurrean Etxanoko apaizetxean zeuden erlijioso zaharrak babestu zituelako.

- Azkenek, A. Jose Domingo Ugartetxea abertzale porrokatua izateaz eta, Nobizioen Maisu zen aldetik, nobizio gazteen artean abertzaleen aldeko propaganda egiteaz salatua.

Horien antzeko salaketak jasan behar izan zituzten Bautista Legarra, Bizente Batiz, Sebastian Atutxa, Lino Akesolo, Anjel Iturbe, Luzio Agirre eta Santi Onaindia karmeldarrek ere.

Luze joko luke 1937ko uztailaren 30eko Urgentziazko Prozesuan egin zuten euren buruen defentsazko xehetasunak hemen biltzeak. Bederatzi akusatuek Karmeldarren Kontseilu Probintzialera, 1937.08.03ko dataz, bidali zuten idazkian irakur daiteke hori; epaiketari gertatu zena kontatzen da idazki horretan eta, gainera, salatarien izenak ere agerian jartzen; Nor izango salatariak eta Ordena bereko anaiak: A. José Agustín de los Reyes Pastor salatarien artean ertzekoena eta gogorrena (hain zuzen ere, A. Jose Agustin Larreako komunitateak salbatu zuen, Santanderren arrisku larrian zegoela handik ekarri eta Larreako komunitateak babestu baitzuen); A. Bizente Ugarte⁵

⁵ A. Bizentek 1940ko 20an adierazi zuen, berak epaiketari ez zuela ezer esan A. Rafaelen aurka, eta berak sinatutako dokumentuan zenbait salaketa agertzen badira, haiek ez direla bereak (cf. GKPA, Biográficas, caja 161).

aurrekoaren antzekoa izan zen bere bidegabeko salaketekin; eta A. Samuel Perea, A. Augusto Uzkudun eta Anizeto Begue, gehiegizko adierazpenak eginez nabarmendu zirenak. Salata-riei bihotz-bihotzez barkatzen dietela adieraziz amaitzen dute idazkia... Baina historiak ez du barkatzen eta ezin da aurrera egin iraganetik datorren pedagogia ahazturik; horregatik jarri ditugu agerian izenak⁶.

Abuztuaren 2an sinatu zuen epaia Tribunalak: Heriotza-zigorra A. Leonentzat; 16 urteko kartzela A. Bautista, A. Lino, A. Rafael eta A. Nikolasentzat (Bizente Batiz); 12 urte eta egun bat A. Sebastianentzat; 10 urteko kartzela A. Anjelen-
tzat; eta 8 urtekoa A. Jose Domingo eta A. Luziorentzat. Bestalde, A.



⁶ Ikus dokumentua: J. URRIZA - A. UNZUETA - A. FIZ. DE MEDIOLA, *Provincia carmelitana de San Joaquín de Navarra. Carmelitas en Euskal Herria (siglos XIII-XX)*, Vitoria-Gasteiz, 2005, 881-890 or. GKPA, *Historia Provincia*, caja 3: "Los infrascritos, detenidos en el Carmelo de Begoña...". Azkenean bedera-
tzien sinadurak.

Santi 1937.09.09an agertu zen gerrako epaitegian eta 30 urteko betiko kartzelaz zigortu zuten.

A. Leoni dagokionez, Franco Jeneralak sinatu zuen ENTERADO delakoa, "ejecútese" esan nahi duena, 1937.08.27an... Epaia betetzeko albistea 1937ko irailaren 6an iritsi zen Karmelora. Genovés jaunak, Bilboko Gerrako Auditoreak, ahal zuen guztia luzatu zuen epaia betetzea, Burgostik hartara hiru aldiz behartu zuten arren. Bien bitartean, A. Teodoro, Karmeloko Priorea, Iruñera eta Belaskoainera joan zen hilaren 7an eta 8an, hurrenez hurren Olaechea Gotzainarekin eta Gomá Kardinalarekin hitz egitera. 1937ko irailaren 12an lortu zen, idatziz, epaia bete gabe uzteko agindua eta, bi urte eta bi hilabete geroago, 1939ko azaroaren 13an, heriotza-zigorra konmutatu egin zioten 30 urteko kartzelarekin. Data horretan Bilboko Larrinagako kartzelara eramán zuten eta 1941eko otsailean Karmonara; hemendik baldintzapeko askatasunean irten zen 1943an eta 1946an lortu zuen behin betiko askatasuna⁷.

1940.01.26ko BOEn argitaratutako Presidentziaren aginduz eta ondorengo xehapenetan zehazturik, preso haien errugabetasuna bermatzen zuten pertsona garrantzitsuen adierazpenak bilduz⁸, sei urte eta egun batera jaitsi zieten espetxealdia eta erdia bete zutenez gero, beste erdia atzerrian, hau da, Bizkaia eta Gipuzkoatik kanpo, egindako lan pastoralarekin kitatu ahal izateko aukera eman zieten. Horrela, A. Bautista Korellara (Nafarroa) bidali zuten, A. Luzio Nafarroako Alesbesera, A. Santi, A. Lino eta A. Rafael Santanderko Hoz de Aneroko Basamortura, A. Anjel, A. Nikolas eta A. Sebastian Soto-Iruzera, hau ere

⁷ Dokumentu ugari GKPA *Biográficas: León Aranguren*.

⁸ Esaterako, A. Jose Domingoren aldeko adierazpenak egin zituzten Etxanoko alkateak (1939.12.28), Zornotzakoak (1939.12.29) eta Markinakoak (1939.12.31). Larrean haren nobizio izan zirenek adierazpen bat sinatu zuten, beraiekin abertzaletasunaren aldeko propaganda egin zuelako salaketa gezurrezkoa zela agertuz eta haren salatari nagusiak, A. Jose Agustinek, atzera bota zuen Notarioaren aurrean (1940.01.08) Bilboko tribunalfaren aurrean lehenago egindako salaketa.

Santanderren eta A. José Domingo Santander hiriburuko komentura.

A. Leonen alde

Markinako Karmeldarren artxihoan gordetzen diren garai honetako paperen artean, A. Rafaeli dagozkionen artean, haren gutun bat dago, 1942ko ekaineko data duena; gutun hau Karmeldarren Kontseilu Probintzialari zuzendua da. A. Leonen egoera zailaz kezkatutik agertzen da; izan ere, heriotzara kondenatua zegoen eta bi urte geroago 30 urteko espetxealdiarekin konmutatu zioten zigor hori; Kontseilu Probintzialari eskatzen dio, buru eta bihotz sar dadila kartzelatik hura askatzeko ahaleginean: "Hainbat preso politikori, pena *konmutatua* izanik, banakako indultuak eman dizkiete eta horrela asko libre daude jadanik. Hau sinatzen duenak uste du, on litzatekeela nagusiek erlijioso bat edo gehiago izendatzea, jendearen artean eragina dutenak, arazoari bene-benetan heldurik, lan egin eta saia daitezen A. Leonentzat indultua lortzeko modua bilatzen, al bait lasterren aske izan dadin, edota, txarrean ere, Ordenaren senide-maitasuna senti dezan hainbeste denboran kartzela ilunetan den gure anaia horrek; eta hau egin beharko litzateke, sakrifizio ekonomikoa egin beharra balego ere". A. Roman *erlijioso eredu garri eta zitalki bila* izan zenaren bezurak lekuz aldatzea ere eskatzen zuen.

Kontseilu Probintzialak kasu egin zien A. Rafaelen bi eskaeriei, A. Amalio S. Luis Gonzagarenaren 1942ko abuztuaren 20ko gutunean ageri denez.


Espetxean egon zen garaiko zenbait dokumentu pertsonal

A. Rafaellek espetxean egon zen garaiko eta ondorengo zenbait dokumentu original gorde zituen: esaterako, seigarren eskualde militarreko Gerra Auditoreari bere kausa sumarisimoa berrikusteko eskatzen zion 1939ko abenduaren 20ko gutuna; edota Marcos Villa Gómez, Karmonako Kartzela Zentral Berezi-

ko buruarena; gutun horretan, 1940ko uztailaren 29ko dataz, A. Rafaeli baldintzapeko askatasuna ematen zitzaion, baina Hoz de Aneroko (Kantabria) komentua seinalatzen beronen egoitza izateko. 1942ko uztailaren 2an, Bilboko Gerrako Auditoriak, "Hoz de Aneroko Karmeldarretan (Kantabria) nolabaiteko espetxealdi arindua betetzen ari zen A. Rafael, Gasteizko Karmeldarren komenturako izendatzen du, baina hilaren lehenengo egun guztietan lekuko agintariengana agertzeko aginduekin".



A. Rafaellek A. Romanen hilketa kontatzen du bere koadernoetan, baina ez hori bakarrik, hilketa horren testigantzak jasotzen eta hori nola izan zen zehatz-mehatz arakatzen saiatu zen (batez ere bertan izan zen sarjentuaren testigantza), eta hainbat



paper interesgarri bildu ahal izan zituen, Markinako Karmeldarren artxiboan daudenak.

Haren bizitzako alde bat: Sermolariarena

Alde horretatik A. Rafael kasu berezia genuen. Izan ere, ez zen hitz egiteko dohain handiak zituen gizona, ez zirudien etorri handikoa zenik ez euskaraz eta ez gaztelaniaz. Ez zirudien inondik ere hizlaria... Hala ere, ekin eta ekin eta ahaleginduz, eragozpenak gainditu zituen; horrela, sermolari fina izatera iritsi zen. Hitzaldia egiten ari zenean, eraldatu bezala egiten zela zirudien. 29 urte zituela, Altzon (Gipuzkoa) (1919-1927) emandako urteek on egin zioten predikuetaarako. Hala diosku A. Nikolasek (Bizente Batiz):

“Enseñaba el catecismo y primeras letras a los campesinos de las cercanías. Iba a los pueblos vecinos y a otros más apartados a celebrar misa, a predicar, ayudar a los párrocos. Predicó muchas tandas de ejercicios, misiones y numerosas novenas en muchos pueblos de Guipúzcoa, en pequeños pueblos de Navarra conlindantes, llegando a ser reclamado por numerosos párrocos de Goyerri, y de lugares más apartados de Guipúzcoa, pues su oratoria llena de unción y piedad era como un reclamo constante al ser tantas las almas que volvían al buen camino o se enfervorizaban más con su predicación sencilla y convincente. Como y con qué cariño le recuerdan al buen P. Rafael las gentes de Alzo, Alegría, Tolosa, Albistur, Goyaz, Vidania, Villabona, Zizurkil, Amesketa, Legorreta, Orendain, Gabiria, etc. que tuvieron la suerte de conocerle sembrando la buena semilla por todos esos pueblos y que todavía viven!”⁹.

Bizkaira itzultzean, aldi batzuetan, buru eta bihotz predikuei emana egon zen, kristauei herri-misio ugari, fraide eta mojei gogo-jardunak, bai euskaraz eta bai gaztelaniaz emanez. Bizkaiko pulpiturik ospetsuenetan izan zen. Karmeldarren euskal probintzian ofizialki bakoitzari egin zitzaion inkesta bateko

⁹ APCM, A-XII-1: *Memoria de los religiosos*, 102-103.

galderei erantzunez, A. Rafaelak bere jarduera garrantzitsuenen artean, "gogo-jardunak ematea eta sermoiak egitea"¹⁰ jarri zituen.

A. Rafaelen autorretratu (inkesta baten inguruan)

A. Luis Alberto Lunak 1971ko lehen hilabetetan egindako Bisita jeneralean, Probintziako erlijiosoen artean inkesta bat egin zen: erlijioso bakoitzak bere lan pertsonalaz eta bere egoera pertsonalaz erantzun behar zuen; idatzizko inkesta zen¹¹. A. Rafaelak 81 urte zituen orduan eta Markinan bizi zen.

Inkestako galderen aurretik, egoera pertsonalaz zenbait argibide eskatzen dira; esaterako, A. Rafaelak hizkuntzen ezagutzari buruz dio, berak "euskara, gaztelania, latin eta frantses pixka bat" zekizkiela. Gaixotasun iraunkorrei buruz honela erantzun zuen: "aortaren dilatazioa, hipertentsioa, bronkitis kronikoa...".

Horren ondoren 10 galdera zetozen; haietako hiruri ez zien erantzun.

1. galdera: Pozik zaude etxe honetan? Erantzuna: "Bai".

2. galdera: Non egon izan zara ondoen? Zergatik?

- "Altzon, nire lehenengo tokia izan zelako eta katekesia, korua, gau-eskola sortzen bete-betean sarturik eta herrietan hitzaldiak eginez poz-pozik ari nintzelako".

3. galdera: Non egongo zinateke ondoen? Zergatik?

- "Oraintxe nagoen tokian".

4. galdera: Zein lanetarako zaude ondoen prestaturik?

- "81 urterekin?"

5. galdera: Zertarako prestatu nahiko zenuke bereziki?

- "Heriotza santua izateko".

¹⁰ GKPA, Biográficas, caja 161.

¹¹ Dokumentua bi foliokoa da eta Markinako Karmeldarren artxiboan dago.



9. galdera: Besteen garaipen nahiz porrotek irakasten al dizue zerbait, bai komunitateko obedientziari begira eta bai ekintza apostolikoari begira?

- "Bai, asko".

10. galdera: Zure ustez, zeintzuk dira Karmeldarraren lan apostolikorik berezienak?

- "Misioak, gidaritza espirituala, geure legeak ondo betetzean oinarrituz".

Azkenean, hau eskatzen zen:

Zure lana kalifika ezazu, zure jokaera ondoen agertzen duten adjektiboak azpimarratuz:

Gogorra, berez-berezkoa, bizia, iraunkorra, pazientzia handikoa, xehetasunezkoa, eragozpenak aurkitzen dituzu guztian, desordenatua, sistematikoa, geldoa, biltzailea, ikonoklasta.

Gaixotasuna eta heriotza

Azken 18 urteetan Markina bizi zen (1957-1975): administraziole azkarra, ortuan laguntzen, sukaldean eta abar, beti zerbitzurako prest. Apaiz egin zeneko urrezko ezteiak gogoratzea komeni da; Markinako Karmenen ospatu zen 1967ko ekainaren 17an, Jesusen Bihotzaren egunean. Meza nagusian ikastetxeko koruak kantatu zuen A. Emilianoren zuzendaritzapean, A. Rafaellek berak egin zuen hitzaldia, bere garairik onenetan bezala estilo bizi eta distiratsuan.

Azken urteetan hainbat gaitzek jota zegoen, baina burua argi-argi izan zuen azken unera arte.

Gorago aipaturiko gaixoez gain, ikusmena ere galduz zihotan. 1969ko ekainaren 12an, A. Probintzialak, Frantzisko Ibarmiak, Aita Santuari baimena eskatu zion A. Rafaelentzat, Karmengo Amaren deboziozko meza edo hilen meza eman zezan, ikusmeneko arazoengatik; 79 urte zituen¹². Baimen hau 1969ko ekainaren 17an eman zitzaion, A. Jeneralaren, Migel Angel Batizen, gutunean ikus daitekeenez¹³.

A. Juan Iturregik, Markinan 2004ko urriaren 14an 94 urte betetzeko hil zenak, 1975eko maiatzaren 1ean gutun bat idatzi zuen A. Rafaeli buruz; gutuna haren heriotza kontatuz amaitzen du:

"Tuvo una muerte plácida, y en día de la Virgen de Lourdes, de quien parece había recibido en vida un favor especial, según refirió a alguien de su infancia. Los que le asistimos la víspera creíamos que se iría el día 10, pero su desenlace final fue a las 3- de la madrugada del día 11, día de N^a S^a de Lourdes. Por no haberse publicado en la prensa la noticia de la defunción no fue muy concurrido el funeral, si bien celebraron cerca de los 30 religiosos, habiendo asistido N. P. Provincial. Predicó la homilía el P. Lino, prior, quien entre otras cosas dijo

¹² Erromako Artxibo Jenerala OCD.

¹³ GKPA, Biográficas, caja 161.

del difunto que: su vida fue una subida al Calvario por sus muchas enfermedades y diversas pruebas a que le sometiera la sabia Providencia... Y tras el Calvario ¿quién duda que está la luz eterna de la Gloria?¹⁴

Bai, A. Rafael 1975eko otsailaren 11n hil zen.

Julen Urkiza - Luis Baraiazarra

¹⁴ GKPA, Biográficas, caja 161.